

BERMEO / Lehengo liburutegi isil eta serioaren ikuspegia eraldatzea da asmoa

Liburutegiak hogei urte bete ditu eta zarratu egingo dute hamabost egunez, zaharberritzeko eta berrantolatzeko

EKAITZ GOIENETXEA

Marije Bidagurennek bi urte daroaz Udal liburutegiko eta artxiboko arduradun legez, eta nabari zaio gustuko duela. Liburutegia 1987an eraiki zuten, hurrengo urtean inauguratu eta, hogei urte pasatu ostean, orain zaharberritu egingo dute (uztailaren 16tik abuztuaren hasierara itxita egongo da).

Martxan hasi zenetik asko aldatu da liburutegia?

Bai. Haur liburutegia dagoen lekuan lehen erakusketa gela zegoen. Haur liburutegia orain bideoak eta diskoak dauden lekuan zegoen, eta sarrera ere beste leku batetik zen. Aldaketa nahikotxo egon dira. Gero, Nestor Basterretxea erakusketa gela ireki zenean, umeena beheko aldera pasatu zen, zaratagatik. Aldi berean, sarreraren aldaketa ere egin zen, ezinduentzako ere egokiagoa. Turismo bulegoa ere sartu behar izan zen 2005ean. Arinagotik proiektu bat zegoen hor zerbitzu berriak sartzeko: bideoteka, fonoteka... Horregatik egingo ditugu orain aldaketak.

Zaharberritze lanekin batera.

Leihoak aldatu behar dira, eta zarratu egin behar dugu, eta aprobetxatu egingo dugu batez ere lehenengo solairua hobeto berrantolatzeko. Lehen beheko solairua izan behar zena, Turismokoak sartu baino lehenago, lehenengoan ipini. Orain, liburutegietan hori egiten da: ez izatea liburutegia bakarrik. Jendeari beldurra ematen dio askotan, uste duelako isilik egon behar den lekua dela, irakurtzeko eta serio. Orain, lehenengo solairua aisialdirako leku bat izan dadila gura dugu: arratsalde pasa, irakurri apur bat, edo filme bat ikusi, edo musika apur bat entzun...

Hor aparailu berriak ere sartuko dituzue, ezta?

Bai; lehengo proiekturako erosi ziren pantailak, baina, ezin izan ditugu inoiz ipini. Orain, hiru pantaila ipiniko ditugu. Azken batean, berton daukagun materiala berton ikusteko aukera ematea.

Eta zelan ikusi ahalko dira filmeak? Entzungailuekin?

Bai. Toki askorik ere ez daukagu. Hiru pantaila dauzkagu, baina, bakoitzean bi pertsona egoteko moduan ipiniko ditugu, bideoak ikusteko. Gehienbat, VHS bideoagaz pasatzen dena orain, gero DVDagaz gerta daitekeelako. Beste material berriren bat etorriko da eta DVDrik ez da egongo etxeetan, eta berton bakarrik ikusi ahalko dira material asko ez delako osteria ere argitaratzen. Askok pentsatuko dute ez daukala zentzurik liburutegian bideoa ikusteko aukera izatea, baina hori da asmoa: eraldatzea liburutegiaren ikuspegia. Orain leku askotan ez dute liburutegia esaten, orain mediateka deitzen diote.

Hemen ere mediateka izatera aldatuko da?

Horretan gabilta. Hori da helburuetako bat, jendeak ez dezala ikusi lehengo liburutegia, estudianteeentzako lekua. Ideia da beheko solairuak izatea aisialdirako eta erreferentzia atalerako, eta bigarren solairuan geratzen da estudianteen lekua edo informazio konkretuaren bila joatekoa. Behekoa erabilera desberdin eta anitzagorako.

Zenbat film dauzka Bermeoko liburutegiak?

2.600 bueltan.

Diskoak?

Apur bat gutxiago, 2.300 inguru.

Kopuru handiena liburuena izango da.

Liburuak, bai. Bilduma osoak baditu 40.000 ale. Dena ez dago agerian. Badago materiala erretiratuz joan eta biltegian dagoena. Katalogoan aurkitu litezke, baina, biltegian daude, ez apaletan. Hori ere arazo bat da: apal berriak behar ditugu.

Beraz, oraindino liburua ez da desagertuko.

Ez dut uste. Umeen liburutegian, umeei ere liburuagaz ibiltzea gustatzen zaie. Teknologia berriek gauza asko ekarriko dute, baina liburu formatura oso eginak gaude. Niri oraindino egunkaria, egunkaria bera irakurtzea gustatzen zait [eskuekin keinu egiten du, egunkaria zabal-zabalik edukiko balu bezala mahai gainean]. Eguzkia hartzea legez. Joan zaitezke solarium-era, ezta? Baina, eguzkia hartzea zein goxoa den!

Liburu formatua ez, baina, liburu konkreturen bat maileguan hartu eta desagertu?

Askotan. Baina, ez da normalena. Oso puntuala da eta jendearen despistearengatik izaten da. Gutxitan gertatu zaigu liburua hartu eta gehiago ez dena etorriko liburuak berarentzat gura dituelako. Pertsona horrek bueltan gura badu liburutegira etorri liburuarekin etorri beharko du; denok ezagutzen dugu elkar eta, zu, horiek liburuak zer?, esaten diogu. Azkenaldian bai pasatzen da, etorkinekin, hainbeste mugitzen direnez, liburutegira etorri eta gero Bilbora doaz bizitzera, eta kasu horretan bai, ez bada liburua ekartzen etorri, gero Bilbotik ez zaizkizu etorriko ekartzeko. Baina, ez da hain gauza grabea.

Liburutegiko libururik zaharrena zein da?

Badaude batzuk Ertzilla dorretik ekarritakoak. Gainera, urte honetan ibili gara errolda egiten. [Ordenagailuan begiratu, eta aurkitu du] XVI. mendeko liburu bi dauzkagu, XVII.eko hiru, XVIII.eko hamazazpi eta XIX. mendeko hamasei.

Orduan, Ertzilla izan da lehengo liburutegia?

Antzina bai. Uste dut 1950. urtearen bueltan izan zela liburutegia. Gero, beste nonbaiten ere egon zen, hemen baino lehenago. Baina ez dakit ziur.

Artxiboan ere egiten duzu behar. Gauza kuriosorik?

Asko. Gainera, Bermeo da herri mailan bere artxibo historikoa mantentzen duen bakarrenetarikoa. Gehinetan Diputazioak hartzen du ardura, baina Bermeok bere dokumentazio guztia oraindino hemen dauka. Ez dauka asko, suteak-eta egon direlako. Zaharren eta garrantzitsuenetarikoa 1684ko udaletxeko akta liburua. Hortik aurrera, bilduma osoa dauka gordeta. Liburu hori lehen ezin genuen atera ere egin, apurtu egiten zelako. Iaz tratamendu berezi bat egin zion enpresa batek. Niretzat hori da garrantzitsuenetarikoa. Gero, denetarik dago.

Astelehenetik zarratuta egongo da, obretan. Liburutegia faltan botako duenari, zer esan?

Ba, gaitz. Aukera badago maileguak bueltatzeko Turismo buelgoren bidez, baina ezin dugu mailegurik eman. Kultur etxean ikasketa gela ere zabalik egongo da. Eta gero, nik uste dut Bermeon udan badaudela egiteko gauza asko. Uda ez da liburutegian jende asko egoten den sasoia. Badago jendea egunero-egunero etortzen dena, tabernara joaten dena legez. Baina, egin behar dugu eta ez da beste aukerarik izan. Hamabost egunetan aguantatu egin beharko dugu.